

Besoitaormaechea (-a) etxebizitza

Aldacrak:

Ahozkoa:



43° 11' 20"

2° 34' 28"

Berriz Irudian / J.A. Ramos

“... la casería rústica titulada Besoita Ormaechea... situada en la barriada de San Lorenzo jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con su orrio horno colmenar y basurero ciento noventa y dos estados cuadrados superficiales de area...”
DJE 1/160 or. (1864)

Bizitza biko baserri honen gaineko lehen arrasto dokumentala Bizkaiko su-erroldean topatzen dugu, 1704. urtean, alegia: *Ormaechea*. Gerora, dokumentu guztietan izen bi topatzen ditugu, hots, batzuetan *Besoitaormaechea* (1825, PE/1825) eta beste batzuetan *Ormaechea* (1863, DJE, 1/6. or. / 1967, BUA, CE.). Berriztarren artean ere, izen bi mantendu dira ahozko erabileran, *Ormaétxe* eta *Besóitte ormétxe*, hain zuzen ere.

Oso hondatuta dagoen baserria da, benetan berezia. Bere izenak adierazi moduan, gure ustea zuzena bada, behintzat, hormadun etxea da, harrizko hormaduna, harlanduzko hormaduna. Silarri bikainekoak dira bere osteko horma osoa (saierterak eta puntu erdiko arkudun leihoa dauzka hor) eta fatxada nagusian bereiz-

ten diren albo bietako gorputzak, bereziki esku-ma aldekoa, oso-osorik harlanduzkoa eta leiho molduratu daukana. Ezkerraldekoak, berriz, kantalak eta leiho inguruak dauzka halakoak. Etxea hiru gorputzduna da, sarri ematen den taxuketa Berrizko baserrigintzan, eta erdiko gorputza material apalagoz eginda dago, besteak baino barrurago. Sarrera gisa atartea dauka, egurrezko dintelduna, eta erdian koloma toskanarra daukana euskarri moduan. Eta gainean, egurrezko egitura, harlangaitzezko tarteekin. Leihoak eta txori-tokiak dauzka goialde horretan, bi isuritako teilatuaren babesean. XVI. mende erdialdeko etxea da, eta barruko zutoinek frogatzen dute dolare batenak zirela.

toponimia

Berrizen badira -ita amaiera duten leku izen asko eta Etxeita kasuan hasieran etxe egon daitekeela pentsa daitekeen arren beste batzuetan hasierako osagaia pertsona izen bat izan litekeela pentsa genezake. Hori balitz kasu honetan Beso edo antzeko zerbait izan genezake, baina datu gehiago beharko genuke zerbait ganoraz ondorioztatzeko. Kasu honetan izenaren bigarren osagaiak eraikinaren materialekin erlazionatuta dago. Antzina etxeen hormak zurezkoak ziren, oho-lez eginak, eta horregatik ormaetxea hau “harrizko hormak dituen etxea” da.